

EKAINAK 6

Espainiako
Legebiltzarrerako
hauteskundeak

Jauregi Lehendakaritzarako bidean

Igandeko emaitzekin sozialista izango litzateke EAEko lehendakari

Herenegungo emaitzak EAEko Legebiltzarrerako balira Ramon Jauregi PSE-EEko burua izango litzateke EAEko lehendakari. Gainera beste ezuste batzuk ere izango lirateke: IUK talde parlamentarioa osatuko luke, EA-EUEk zazpi aulki galduko lituzke eta HBk hiru. Nafarroan HBk eta EA-EUEk bana galduko lukete, IUK lortuko lituzkeenak hain zuzen.

FELIX IRIARTE / GASTEIZ


Herenegungo bozketak EAEko hauteskunderetan errepikatuko balira Jose Antonio Ardanza jeltzaleak galdu egingo luke Jaur-laritzako Lehendakaritza. Bere ordezkari Ramon Jauregi PSE-EEko kidea eseriko litzateke, jeltzaleek baino bi legebiltzarkide gehiago lortuko lituzketelako sozialistek. PSE-EEk hogeitatu lortuko lituzke, eta EAJk, aldiz, hemezortzi. Gaur egun PSE-EEk hamasei kide ditu Legebiltzarrean eta EAJk hogeita bi.

Jauregik, hala ere, koalizioan gobernatu beharko luke. Eta gainera aukera «normal» bakarria izango luke gehiengo erdieste-ko: PSE-EE-EAJ gaur egungo koalizioa hain zuzen ere. Talde bien artean 38 diputaturen babesa izango lukete —gaur egun duten kopuru bera— hau da gehiengo absolutua hirurogeita hamabost legebiltzarkide esertzen baitira Gasteizen.

Legebiltzarreko hirugarren indarra PP litzateke. Jaime Mayor Orejaren alderdiak bikoiztu egingo luke ordezkariak, lurralde bakoitzean orain baino bi diputatu gehiago eseriz, hamabi izango lituzke. Gipuzkoan hiru diputatu akta eskuratuko lituzke, Bizkaian lau eta Araban bost.

Galtzaile nagusienak alderdi abertzaleak lirateke. Euzko Alderdi Jeltzaleak sei gutxiago izango lituzke, baina EA-EUEk zazpi legebiltzarkide baino ez luke lortuko. Orain hamalau dira. Herri Batasunak ere behera egingo luke. Gaur egungo hamahiru legebiltzarkideak hamarrean geratuko lirateke.

Koalizio abertzaleak diputatu bana galduko luke lurralde bakoitzean. HBk bi legebiltzarkide izango lituzke Araban, hiru Bizkaian eta bost Gipuzkoan. EA-EUEk bakarria lortuko luke Araban eta Bizkaian eta Gipuzkoan bost aterako lituzke. EAJk, berriz, bi galduko lituzke Bizkaian, eta bana Araban eta Gipuzkoan. EAJko hemezortziak honela ba-



Ramon Jauregik etekin handiak atera ditu hauteskunde hauetan. SIMAL


natuko lirateke: bost Araban, zortzi Bizkaian eta bost Gipuzkoan. Hiru alderdi abertzaleen artean 35 legebiltzarkide osatuko lukete.

IZQUIERDA UNIDA GORA

EAEko berrikuntza nabariena IU litzateke herenegungo emaitzekin. EAEn eta Nafarroan ere gora egingo luke bostan eta diputatutan. Gasteizko Legebiltzarrean estreinatuz gain talde parlamentarioa osatuko luke bost kideekin: Gipuzkoan bat aterako luke eta bi Araban eta Bizkaian.

Unidad Alavesa alderdiarik edukiko ez lukeen alderdi bakarra litzateke. Gaur egun hiru diputatu ditu Gasteizko Legebiltzarrean, eta hirurekin jarraituko luke. Hala ere, hirugarrena azkenaurrekoa litzateke.

Nafarroako Parlamentuak ez luke aldeketa nabarmenik izango. Nabarmena abertzaleen galera litzateke. PSNk egungo hogeitatu diputaturekin segituko luke, eta UPNk hemeretziarekin, alderdiarik gabe.



Juan Cruz Alli.

JOXE

UPNk eta PSNk berdin segituko lukete Foru Parlamentuan

IRUÑEA

Nafarroako Parlamenturako hauteskunderetan hereneguneko emaitzak errepikatuz gero, alderdi txikiak bakarrik izango lituzkete aldeketa parlamentari kopuruari dagokionez. Horrela, Herri Batasunak eta Euzko Alkartasunak parlamentari bana galduko lukete: HB bostekin geldiko litzateke eta EA birekin. Izquierda Unidak, berriz, bere ordezkariak bikoiztu egingo luke, bitik lau parlamentarira pasatuta.

Alderdi nagusiei erreparatuz gero, indar koerlazioak bere horretan segitzen du. UPN-PPk bere 20 eskainuei eutsiko lieke eta PSN-PSOE bigarren indarra izango litzateke, 19 parlamentariarekin. Beraz, 1995ean orain adina zailtasun izango luke Juan Cruz Alliren alderdiak bakarrik agintzeko, minorian egongo bailitzateke Parlamentuan. Gainera, kontuan izan behar da hurrengo foru hauteskunderen aurretik Foru Hobekuntzaren 29. artikulua aldatuko dutela. Ondorioz, UPNk ez du prozedura automatikoa baliatzerik izango Gobernu eskuratzeko, baizik eta Parlamentuan sostengu gehien lortzen duen alderdiak aginduko duela. PSNk UPNk baino errazagoa dauka EA eta IUekin ados jartzea, baina hauen laguntzarekin ere 25 boto bakarrik izango lituzke, gehiengo osoa lortu gabe.

Hala ere, Jesus Aizpun baikor agertu zen atzo, 1995ean gehiengo absolutua lortuko dutelakoan. UPNko lehendakariak argudiatu zuenez, bere alderdiak Legebiltzarreko hauteskunderetan baino emaitza hobeak atera ohi ditu autonomikoetan, erregionalista kutsua duelako. Datuek kontrako diote, ordea: 1989ko Legebiltzarreko hauteskunderetan UPNk 2 puntuko aldea atera zion PSNri, baina 1991ko foraletan aldea 1,5era jaitsi zen, sozialisten mesederako.